

Karlos Kinto

Hondarribia, 39. zk., 1990-07: 4.

Hondarribian badugu Karlos Kinto Enperadorearen gaztelutzar bat.

Hau da behar bada herrian utzi duen arrasto bakarra; hondarribiarrek apenas duten gerretako heredentzi honetaz kanpo gizon honen beste oroipenik.

Brusselan, aldiz, utzi zituen markak.

Aragoiko Fernando aiton espainola 1516an, Nafarroako erreinua bortxatu eta gero, hil zitzaionean, Brusselako Sainte-Gudule elizan egin zuten bere ordeko. Bertako seme batek esan zuen hilen otoitza, eta bi aldiz aldarrikatu: "Don Fernando, Gaztela eta Aragoiko erregea!" Inork ez zion erantzun. Eta ia ahapeka esan zuen berriz hiru aldiz isilune hartan: "Hil da, hil da, hil da". Oraingo honetan horretarako prestatua zegoen batek esan zuen: "Doña Juana eta don Karlos, Jainkoaren graziaz Errege Katolikoak, Erresuma eta Printzipatu guztien jabeak", eta Aragoiko estandarte etzan zuten, eta gero Aragoiko estandarte hau jaso zuten une berean agertu zen Karlos, 16 urte (Gante 1500) honek jaso zuen Badajoztik etorritako gotzaiaren eskutik justiziaren ezpata, eta adierazi zuen onartzen zituela denak, noski, eta eliza gotikoan bildu zen mundua ojuka, gora eta gora, hasi zen aldarrikatzen!

Karlos, bertako eta Espainiako erregeak, ez zuen jaioterria berehala utzi; han geratu zen hurrengo urtean, 1517an egin zizkien agurrak Gan-en bildutako Batzar Nagusiak prestatu zirenean, eta lehenbait lehen itzuliko zela aginduz joan zen.

Hala gertatu ez bazen ere.

Karlos Kintok, enperadore izendatzeko denbora hartu zuen (1519), eta Eguzkia sartzen ez zen Inperioaren buru bazen ere, flamenkera eta frantsesa hitzegiten zituen, baina alemanik eta gaztelerarik ez zuen ulertzen, eta Espainian haserretu egin zitzaizkion! Gerrak eragin zituen, bai, ez gutxi, batez ere Frantziako Francois I. ren aurka. Biak handikeria eta irrikitasun bera!! Karlos Kintori sortu zitzaion, besteen artean, Belgika eta inguruetakoa herrien altxamendua ere, ez baitzuten bere lurretan ikusi ere egiten, eta ikusten ez zuten honek sortutako gerrak ordaindu beharra, bai, nabaritzen zuten! Altxamendu honen erantzun gisa, eskarmenturako, hirurogeita hamar urteko agure bat, Liéven Pyn izena zuena, torturatu eta hil arazi zuenean, oraindik gehiago gogortu zen bere aurkako jarrera.

Azkenean, ordea, damuak eraginda edo, bere jatorriko berriak bildu zituen, "Hemezazpi Prontzia" izenarekin aparta ez zitezen, eta zentralizazioaren barruan bakoitzari Federazio baten antzera bere herritasun osoa gordetzen ahalegindu zitezen.

"Gaizki eginak, barkatu, esan nahiean bezala" (Augsbourg, 1548).

Ez zen hain zaharra ere, baina ezuri edo "gota" gaitzak jota, eta galera politikoak eta gerrak bultzata, Espainiara itzuli nahi izan zuen; hemen, Yusteko monastegian, bere jatorriko paisaia berdea begien aurrean zuela, hiltzera prestatu zen. Aurretik, 1555an heldu zen Brusselara mando baten gainean, zaldigainak min gehiago egiten ziolako,

nonbait, joan zen Coudenberg-en bilduta zegoen legebiltzarraren aurrera; bere kontseilari zen Brusselako Philibert-ek esan zuen, Enperadoreak bere lurra bere seme zen Felipe II.ri pasatzea erabaki zuela, sotinka eta negarrez entzun zituen Enperadoreak hitz hauek, eta bitartean jaiki zen semea Felipe II, eta hasi zen frantsesez... ezinean, ez baitzekien, eta azkenean ondoan zeukan agintari batek zuen esan behar zuena; bertakoen ohitura eta askatasuna eta pribilegioak eta fede katolikoa defendatuko zituela!...

Hotza izan zen harrera.

Belgikako historigile batek esaten duen bezala; arrotza zen hizkuntza zegoen herria eta agintariaren artean.

Bere aita, Karlos Kinto, Yuste hotz batek jo eta gurutzea bi eskuekin bularraren kontra zuela hil zen bere ohean 1558go irailak 21.

Ez gara, beraz, gu bakarrik zanpatuak eta erabiliak izan!

Baina gaur Belgika aske da, eta inguruetako herriak ere bai. Eta guri jatetxe bat izatera jaitsi den gazteluko kate zaharrak eta astunak geratu zaizkigu; behar bada honek berez zerbait esan nahi du.

Esan nahi digu, hobeto esan.